



BRAND NEW SINCLAIRS, arima beltza eta ye-ye etorria

Primerako oinarri erritmiko biribilak eta gitarra karraskatsuek, gustu onak eta Ana Sinclair-en ahots dotore eta goxoak, arima beltza eta ye-ye etorria daukaten taldea osatzen dute.

Hauxe da **BRAND NEW SINCLAIRS** taldearen definizio onenetakoa sarean, Flor y Nata Records-en azken fitxaketa, independenteen artean diskoetxerik urtetsuena (1981-2011)

Askok haien lehen **“Ten Blue Pills”** (Bip Bip Records) diskoarengatik ezagutuko duzue. Orduan ere deigarri gertatu izan baziren euren garage, R&B, soul, ye-ye eta beat nahasketarekin, oraingo bigarren **“Healing Souls”** diskoarekin behin betiko konkistatuko zaituztete.

Izan ere, BRAND NEW SINCLAIRS taldeak gaur eguneko taldea bada ere, baztertu ez ezik 60. hamarkadako soinua lortzen lagundu zuten elementuak erabili egiten du. Horrela, orduko hots errepikaezin eta bereziak pop melodiaz fusionatzen dute eta Anaren ahotsari ezin hobeto moldatuz, nortasun handiko soinua nahastezina lortzen dute.

BRAND NEW SINCLAIRS dira: **Ana Sinclair** ahots eta perkusioa; **Andi Sinclair** gitarra eta koruak; **Julio Sinclair** baxu eta koruak; eta **Rafa Sinclair** bateria.

“Healing Souls” “Greatest Hits” bat ia-ia

Intro labur baten ostean, **“Healing Souls”** albuma **“Heal my soul”**, abestiarekin hasten da, **Brand New Sinclairs** soinuarekin konektatzeko tiro dantzagarria, dantatzeko gogoia diskoaren azken abestia arte kenduko ez bazaizu ere. Leloa buruan grabatuko zaizu: **“Oh my sweet doctor, I need my medicine, I wanna heal my soul”**. Film onetan gertatzen den bezala, lurrikararekin hasi eta gorantz egingo du etengabe. Gorantzako bidea **“Ronnie”**, **“A Way of Life”** edo **“Where you real?”** osatuko dute. Abesti guztiek dute aproposa dagokien lekua diskoan, baina era berean badirudi **Brand New Sinclairs**-en “Greatest Hits” bat osatzeko eginak direla. Denborak esango du...

HEALING SOULS Hans Kruger-ek grabatua da (Nafarroako Montreal Studios – 2010ko azaroa) eta Ibon Larruzeak masterizatua (Studios Euridia)

promo@florynatarecords.com

www.florynatarecords.com



brandnewsinclairs@gmail.com

www.myspace.com/brandnewsinclairs

FyN-51 CD 8435015512200 PVP: 11 € – FyN-52 LP 8435015512217 PVP: 15 € – Dendak distribuciotu zituzten www.discmedi.com

fotoak: www.photofreelance.es